

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZALLAKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zallako Udalaren 2006ko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasuna betetzeari dagokion atalean Udalaren jardueraz HKEEk aldeko iritzia plazaratu du eta hiru salbuespen baizik ez ditu egin iritzi orokor honen gainean.

Hiru salbuespenek hainbat esleipenetan eta kopuru ezberdinekin administrazioko kontratazioa arautzen duten lege hausteei egiten die erreferentzia, prozedura negoziatu eta kontratu txikiaren moldea erabili izateagatik, kontratuen zatikatzea ekarri dutenak; iraupen osoa ez zehaztu izateagatik; isilbidezko luzaketa, denbora mugari gaina hartuz, eta azkenik, dagozkion aldaketak izapidetu gabe zerbitzu luzapenak gauzatu izateagatik.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiaren gainean eta bi salbuespen egin ditu, bata, Bilboko Udalak 1996ko urteaz geroztik egindako ur kontsumoengatiko erreklamazio bati dagokiona, 2 milioi euro ingurukoa, zeinetarako Udalak ekitaldi itxieran horretarako inongo zuzkidurarik egin ez duen, eta bestea, Diruzaintza Geldikina 1,2 milioi euroko zenbatekoarekin gehitu duten hainbat doiketari dagokiena.

Erakunde Autonomoari dagokionez, legezkotasunaren atalean HKEEk aldeko iritzia plazaratu du legea betetzeari dagokionez, honako salbuespen hauek tarte: langileen alorrean iraupen jakineko kontratua zuten bederatzi langileren kasuan publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu dira eta kontratazioaren atalean, berriz, bi kontratutan ez da iraupena edo balizko luzapena eta lanaren zabala zehaztasunez mugatu.

Erakunde Autonomoaren kontu orokorren gainean eman duen iritzia ere aldekoa izan da, zorpetutako eta ekitaldi itxieran erregistratu gabeko garrantzia txikiko gasturen bat salbuetsita.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio alorretan.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez, Udalak aurreko urteetako inbertsio mailari kanpoko finantzaketara jo gabe eta Diruzaintza Geldikina murriztu gabe euts diezaiokeela adierazi du.